

**ZUZENTZA SAILA****4343**

404/1994 DEKRETUA, urriaren 18koa, Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza antolatu eta ihardunean jartzeko Arautegia onartzeko dena.

Ekainaren 17ko 12/1994 Legeak, lege horri berorri lotuta dauden fundazioei buruz Euskal Autonomi Elkarteko Administracio Nagusiak egindako Babeslaritza arautzen duenean, batez ere aholkuak eta argibideak emateko administracio-organo lez eratzen du Babeslaritza hori; baina ez ditu alde batera uzten era-kunde horiei onarpena eta legezko babesak emateko oinarrizkoak den interes orokorrak eskatutako ikuskaritzaga-eginkizunak ere.

Babesa eman behar izan arren, lege horrek argi eta garbi aukeratu du askatasunaren bidea, eta alde batera uzten ditu Babeslaritzak aurretik baimenak eman eta kontrolak egin behar izatea. Oreka estua zaintzen du legeak bi alderdi hauen artean: batetik, fundazio bakoitzaren nahia eta iharduteko autonomia errepetatzentzu ditu, era-kunde horien indar suspertziale direlako, eta bestetik, kudeatzaileei erantzukizuna ezartzen diezten mekanismoak arautzen ditu, fundazioek sustatutako interes orokorra babestu eta berrezartzeko beharrezkoak direnean.

Irizpide horiekin bat etorri eta legearen azken era-bakietako bigarrenean ohartemandakoa betetzeko, arautegi honen II. atalburuan uzten dira araututa Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza antolatu eta ihardunean jartzeko zenbait alderdi, ikuspuntu bitatik begiratuta. Alde batetik, Zuzentza Sailari dagozkion ahalmenak garatzen dira, bere pentzutan uzten baita horiek betetzeko erantzukizuna; eta bestetik, ordea, fundazioen alor berezietai eskuduntzak izan eta Aholku Batzordean sartuta gelditzen diren sailei egotzitako ahalmenak garatzen dira, Babeslaritzari sorospena eta laguntza emateko eginkizunak izango baitituzte.

Ildo horretatik, Aholku Batzordea, aholkuak emateko izango denez, maila bitan egituratzen da: Osoko Bilkura eta Batzorde Teknikoa. Lehenengoak, bada, erantzukizun gehiagoko eginkizun orokorrak izango ditu, eta fundazioen izaerarekin eta ihardunekin zuze-nean edo zeharka lotuta izan daitezkeen administracio-organo guztien artean osatuko dute. Bigarrenak, aldiz, eginkizun teknikoak izango ditu eta kide gutxiagok osatuko dute, eraginkortasun gehiago izan dezan.

Fundazioen Erregistroa, ostera, II. atalburuko 3, 4 eta 5. sekzioetan arautzen du arautegiak, nola eraman, zelako edukina eman eta nola zabalkundea eta inskripzioak egin, guzti hori garatuaz.

Bestalde, III. atalburuan arautzen da Babeslaritzaren administracio araubidea, fundazioen ihardunbide eta ihardunei dagozkienean; zehatzago esanda, arlo hauek arautzen dira: fundazioaren gobernu (1. sekzioa), ekonomiaren kudeaketa (2. sekzioa), kontabilitate eta aurrekontuen kudeaketa (3. sekzikoa), eta fundazioak aldatzea, batzea eta iraungitzea (4. sekzioa).

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA****4343**

DECRETO 404/1994, de 18 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de organizacion y funcionamiento del Protectorado y del Registro de Fundaciones del País Vasco.

La Ley 12/1994, de 17 de junio, al regular el Protectorado que ejerce la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco sobre las fundaciones sujetas a dicha Ley lo configura como un órgano administrativo eminentemente asesor e informador, sin perjuicio de las funciones de supervisión exigidas por el interés general que fundamenta el reconocimiento y protección legal de tales entidades.

En esta función tutelar la Ley opta abiertamente a favor de la libertad y huye de cualquier tipo de controles y de autorizaciones previas del Protectorado, guardando un delicado equilibrio entre el respeto a la voluntad fundacional y a la autonomía de funcionamiento, elementos dinamizadores de estas instituciones, y la articulación de los correlativos mecanismos de derivación de responsabilidad a los gestores, cuando sean necesarios en aras de la defensa y restablecimiento del interés general que promueven las fundaciones.

De acuerdo con tales principios y en cumplimiento de lo prevenido en la Disposición Final Segunda de la Ley, el presente Reglamento aborda en su Capítulo II la regulación de los aspectos organizativos y funcionales del Protectorado y del Registro de Fundaciones desde una doble perspectiva. Por una parte, desarrolla las facultades que corresponden al Departamento de Justicia, a cuyo cargo se atribuye la responsabilidad de su ejercicio y, por otra, las asignadas a los Departamentos competentes en el ámbito sectorial de las fundaciones, integrados en la Comisión Asesora, con funciones de asistencia y apoyo técnico al Protectorado.

En este sentido la Comisión Asesora, de carácter consultivo, se estructura a dos niveles: el Pleno y la Comisión Técnica. El primero con funciones generales y de mayor responsabilidad, conformado por todos los órganos administrativos que directa o indirectamente puedan estar relacionados con la naturaleza y actividades de las fundaciones. La segunda, con funciones de índole técnica y de composición reducida a fin de lograr una mayor operatividad.

En cuanto al Registro de Fundaciones el Reglamento destina a su regulación las Secciones 3.<sup>a</sup>, 4.<sup>a</sup> y 5.<sup>a</sup> del Capítulo II, desarrollándose todos los aspectos relativos a su llevanza, contenido, publicidad e inscripciones.

Por otra parte, en el Capítulo III se contempla el régimen administrativo del Protectorado en relación con el funcionamiento y actividades de las fundaciones y concretamente, respecto al gobierno de la fundación (Sección 1.<sup>a</sup>); gestión económica (Sección 2.<sup>a</sup>); gestión contable y presupuestos (Sección 3.<sup>a</sup>); modificación, fusión y extinción (Sección 4.<sup>a</sup>).

Azkenik, arautegiaren IV. atalburuan xedapen orokorrak aipatzen dira, hala nola: ihardunbideak, konstultak, agiriak aurkeztekotokia, errekurtoak, etabar.

Ondorioz, Zuzentza sailburuaren proposamenez, Juarlaritzaren Kontseiluak 1994ko urriaren 18an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

*Atal bakarra.- Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza antolatu eta ihardunean jartzeko Arautegia onartzen da, eta dekretu honen eraskinean argitaratzen da.*

#### GEHIGARRIZKO XEDAPENA

*Bakarra.- Expedienteak bidaltzea.*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Kultura Sailak eta Lan eta Gizarte Segurantza Sailak Zuzentza Sailari bidaliko dizkiote beren fundazioen jatorrizko expedienteak, fundazio horiekin babeslaritza eta erregistro eginkizunak bete izan badituzte.

#### ALDIBATERAKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.- Estatutuak egokitzea.*

1.- Legearen aldibaterako xedapenetatik lehenengoan eskatzen diren betebeharren arabera, erregistroan aurkeztu beharko dira fundazioen estatutuak, legean ohartemandako epean bertako xedapenetara egokitu eta gero, esandako epe horretan inskripzioa egiteko.

2.- Betebehar horiek bete gabe uzten baditu gobernu-organoak, indarrik gabe geldituko dira legearen aurka dauden estatutuetako xedapenak. Horrelako kasuetan, legearen 31.3. atalean ezarritakoarekin bat etorri, dena delako fundazioak bere estatutuen arabera egoki iharduterik ez badu, Babeslaritzak, dekretu honi erantsitako arautegiaren 62.2. atalean xedatutakoarekin bat etorri, bidezkoak diren aldaketak egiteko agindua eman dezatela eskatu ahal izango die epaileei; baina, horrek ez du esan nahi gobernu-organoari dagokion erantzukizunari buruzko egintzak aurkezterik izango ez duenik.

*Bigarrena.- Aurretiko inskripzioak.*

Egundaino indarrean dauden Fundazio-Erregistroek egindako inskripzioek balio osoa izango dute eta aurrerantzean ere ondorio guztiak sortuko dituzte.

*Hirugarrena.- Expedienteen izapideak egitea.*

Lehenagoko legeen arabera hasitako expedienteen izapideak haien arabera egingo dira eta halaxe erabakiko ditu sail bakoitzak. Ekainaren 17ko 12/1994 Legea indarrean jarri eta gero hasitakoak, aldi, lege horren arabera amaituko dira; sail bakoitzak berari dagozkionak egingo ditu, harik eta Zuzentza Sailaren menpeko Babeslaritza berriak eta Fundazioen Erregistro bakarrak

Finalmente, el Reglamento concluye dedicando el Capítulo IV a Disposiciones Comunes, entre las que se encuentran las referentes a procedimientos, consultas, lugar de presentación, recursos, etc.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 18 de octubre de 1994,

#### DISPONGO:

*Artículo único.- Se aprueba el texto del Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones del País Vasco, que se adjunta como anexo al presente Decreto.*

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

*Única.- Remisión de expedientes.*

Por los Departamentos de Educación, Universidades e Investigación, Cultura y Trabajo y Seguridad Social se procederá a la remisión al Departamento de Justicia de los expedientes originales de las fundaciones respectivas sobre los que hubieren ejercido funciones de Protectorado y Registro.

#### DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.- Adaptación de Estatutos.*

1.- A tenor de las obligaciones exigidas por la Disposición Transitoria Primera de la Ley, los Estatutos de las fundaciones, una vez adaptados a las disposiciones de la Ley en el plazo previsto en la misma, deberán presentarse al Registro para su inscripción correspondiente dentro de dicho plazo.

2.- Si el órgano de gobierno no diera cumplimiento a tales obligaciones, quedarán sin efecto las disposiciones estatutarias que contradigan la Ley. En ese supuesto, de conformidad con lo establecido en el artículo 31.3 de la Ley, si la fundación no pudiera actuar satisfactoriamente de acuerdo con sus Estatutos el Protectorado, sin perjuicio de ejercer la acción de responsabilidad que corresponda frente al órgano de gobierno, podrá instar a la Autoridad judicial que ordene la realización de la modificación que proceda, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 62.2 del Reglamento anexo.

*Segunda.- Inscripciones anteriores.*

Las inscripciones realizadas por los Registros de Fundaciones existentes en la actualidad conservarán toda su validez y seguirán surtiendo todos sus efectos.

*Tercera.- Tramitación de expedientes.*

Los expedientes iniciados conforme la legislación anterior se tramitarán y resolverán conforme a la misma por los Departamentos correspondientes y los incaudos a partir de la entrada en vigor de la Ley 12/1994, de 17 de junio, se concluirán conforme a dicha Ley, cuya aplicación correrá a cargo de los distintos Departamentos en tanto no se produzca la plena efectividad y puesta en

eraginkortasun osoa lortu eta ihardunean jarri arte, dekretu honen azken xedapenetatik lehenengoan xedatutakoaren arabera.

#### INDARGABETZE XEDAPENA

*Bakarra.* – Indargabetuta gelditzen dira honako hauek: azaroaren 12ko 359/1985 Dekretua, Ongizate eta Laguntzarako Fundazioen Erregistroari dagokionean; Hezkuntza eta Kultura Sailaren 1983ko urriaren 21eko Agindua eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1986ko maiatzaren 14ko Agindua; eta horiekin batera, erantsita doan arautegian xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko beste xedapen guztiak ere indargabetuta gelditzen dira.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.* – Garapena eta betearaztea.

Dekretu hau garatu eta betearazteko beharrezko xedapenak agintzeko ahalmena ematen zaio Zuzentza sailburuari.

Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Gara penerako Sailak eta Ekonomi eta Finantza Sailak, bakoitzak bere eskumenen eremuan, dekretu hau ezarri eta betearazteko bidezko diren neurriak hartuko dituze.

*Bigarrena.* – Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitazten den egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau. Baina, arautegiaren II. atalburuko 1, 2 eta 3. sekzioetan eta horiekin bat datozen gainerako xedapenetan xedatutakoa ezingo da ezarri 1995eko martxoaren 1erarte.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko urriak 18.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Zuzentza sailburua,  
JOSÉ RAMÓN RECALDE DÍEZ.

#### ERASKINA

**EUSKAL HERRIKO FUNDAZIOEN ERREGISTROA ETA BABESLARITZA ANTOLATU ETA IHARDUNEAN JARTZEKO ARAUTEGIA.**

#### I. ATALBURUA.– ATARIKO XEDAPENAK

*1. atala.* – Arautegi honetan jasotako lege-aipamenen esanahia.

1.– Lege hitza beste zehaztasunik gabe esaten denean, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioak arautzen dituen ekainaren 17ko 12/1994 Legea aipatzen da.

2.– Arautegia hitza esaten denean, Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza arautzen dituen xedapen hauxe bera aipatzen da.

funcionamiento del nuevo Protectorado y Registro único dependiente del Departamento de Justicia, de acuerdo con lo dispuesto en la Disposición Final Primera del presente Decreto.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

*Única.* – Quedan derogados el Decreto 359/1985, de 12 de noviembre, en lo que se refiere al Registro de Fundaciones Benéfico-Asistenciales; la Orden de 21 de octubre de 1983, del Departamento de Educación y Cultura y la Orden de 14 de mayo de 1986 del Departamento de Educación, Universidades e Investigación así como todas las demás disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo dispuesto en el Reglamento adjunto.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.* – Desarrollo y ejecución.

Se autoriza al Consejero de Justicia para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

Por los Departamentos de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico y Economía y Hacienda se adoptarán, en el ámbito de sus respectivas competencias, las medidas oportunas en orden a la aplicación y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.* – Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. No obstante, lo dispuesto en el Capítulo II del Reglamento, Secciones 1.<sup>a</sup>, 2.<sup>a</sup> y 3.<sup>a</sup> y disposiciones concordantes, no será de aplicación hasta el 1 de marzo de 1995.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de octubre de 1994.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Justicia,  
JOSÉ RAMÓN RECALDE DÍEZ.

#### ANEXO

**REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DEL PROTECTORADO Y DEL REGISTRO DE FUNDACIONES DEL PAÍS VASCO.**

#### CAPÍTULO I – DISPOSICIONES PRELIMINARES

*Artículo 1.* – Significado de las referencias legales contenidas en este Reglamento.

1.– Ley sin más especificación corresponde a la Ley 12/1994, de 17 de junio, que regula las Fundaciones del País Vasco.

2.– Reglamento se refiere a la presente disposición que regula el Protectorado y el Registro de Fundaciones del País Vasco.

3.- Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko Legeari lotuta dauden fundazioei buruz Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiak Eusko Jaurlaritzako Zuzentza Sailaren bidez egindakoa, horixe da Babeslaritza.

4.- Administratzio ihardunbidea esaten denean, bestalde, Herri-Administratzioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen edukina aipatzen da; edo bestela, geroago egindako aldaketak eta, kasua hori bada, legea aldatzen duten arauak eta Konstituzioaren 149.1.18. atalarekin bat etorriz guztientzako administratzio ihardunbidea arautzen duten arauak.

5.- Fundazioen Erregistroa, ostera, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. atalaren bidez sortutakoa da.

*2. atala.*- Administratzio-organoei buruzko hitzen esanahia.

1.- Ekainaren 17ko 12/1994 Legeari atxikitako fundazioen gainean Babeslaritza egiten duen saila Eusko Jaurlaritzako Zuzentza Saila da, edo geroakarrenean eskuduntza berberekin bere ordez jar dadin beste edozein sail.

2.- Eskuduntzak dituzten sailak, ostera, fundazioek dituzten helburuen arabera emandako sailkapena kontuan hartuta, legeak eta Arautegiak agindutako eginkizunak bete eta betearazten dituzten sailak dira.

3.- Kabinete Teknikoko Zuzendaritza izango da Zuzentza Sailak Babeslaritza egiteko erabiliko duen organoa. Zuzendaritza horri buruz egindako aipamen guztiak, bada, geroakarrenean bere ordez jarritako beste edozein organorentzat ere berdin balio dutela ulertu behar da.

4.- Kabinete Teknikoko zuzendarria, bestalde, aurreko idaztakoa aipatutako zuzendaritzako burua bera da.

*3. atala.*- Fundazioa edo fundazioak hitzaren esanahia.

Arautegian fundazioa edo fundazioak hitza esaten denean, legearen arauen menpe jarritako fundazioak aipatzen dira.

## II. ATALBURUA.- BABESLARITZAREN ANTOLAKETA ETA IHARDUERA

### 1. SEKZIOA.- ARAU OROKORRAK ETA EGITURA ORGANIKOA.

*4. atala.*- Helburua.

Ekainaren 17ko 12/1994 Legeak araututako fundazioei aholkuak eman, laguntza teknikoa eskaini eta kontrola egitea da Euskal Autonomi Elkarteko fundazioen Babeslaritzak duen helburua; izan ere, fundazioak eratzeko eskubidea zuzen erabiliko dela erraztu eta sustatzeko eta fundazioen eraketa eta iharduera legez egingo direla bermatzeko izango baita.

*5. atala.*- Eginkizunak.

1.- Aurreko atalean adierazitako helburuak betetzeko, Babeslaritzari dagozkion eginkizunak fundazioei

3.- El Protectorado es el que ejerce la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco sobre las fundaciones sujetas a la Ley de Fundaciones del País Vasco, a través del Departamento de Justicia del Gobierno Vasco.

4.- Procedimiento administrativo hace referencia al contenido de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sobre Régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, a sus posteriores modificaciones y, en su caso, a aquellas otras normas que la sustituyan y que regulen el procedimiento administrativo común de acuerdo con el artículo 149.1.18 de la Constitución.

5.- El Registro de Fundaciones es aquél creado por el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

*Artículo 2.- Significado de los términos referentes a los órganos administrativos.*

1.- El Departamento que ejerce el Protectorado sobre las fundaciones sujetas a la Ley 12/1994, de 17 de junio es el Departamento de Justicia del Gobierno Vasco o cualquier otro que lo sustituya en el futuro en el ejercicio de las competencias atribuidas al mismo.

2.- Los Departamentos competentes son aquéllos que, de acuerdo con la clasificación finalista otorgada a las fundaciones, ejercen sobre las mismas las funciones que la Ley y el Reglamento les atribuyen.

3.- La Dirección del Gabinete Técnico es el órgano a través del cual ejerce el Protectorado el Departamento de Justicia. Las referencias hechas a la misma se entenderán realizadas a cualquier otro órgano que le sustituya en el futuro.

4.- El Director del Gabinete Técnico es el titular de la Dirección referida en el apartado anterior.

*Artículo 3.- Significado de la palabra fundación o fundaciones.*

Cuando el Reglamento alude a la fundación o fundaciones se refiere a aquéllas que son objeto de regulación por la Ley.

## CAPÍTULO II.- ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DEL PROTECTORADO

### SECCIÓN 1.<sup>a</sup>.- NORMAS GENERALES Y CONFIGURACIÓN ORGÁNICA.

*Artículo 4.- Finalidad.*

El Protectorado de las Fundaciones del País Vasco tiene como finalidad el asesoramiento, apoyo técnico y control de las fundaciones reguladas por la Ley 12/1994, de 17 de junio, al objeto de facilitar y promover el recto ejercicio del derecho fundacional y asegurar la legalidad de su constitución y funcionamiento.

*Artículo 5.- Funciones.*

1.- Las funciones que corresponden al Protectorado para llevar a cabo las finalidades expresadas en el artí-

buruzko legean egotzitakoak dira, baina arautegi hone- tan finkatutako zehaztasunen arabera.

2.- Babeslaritzak fundazioekin izango dituen harremanetan, argibideak zabaldu, laguntza eskaini eta aholkuak emango dizkie, bai fundazioak eratu behar direnean zein ihardunean aritzeko orduan, zelako araubide juridikoa duten kontuan izan dezaten eta hortik eratorritako betebeharrok bete ditzaten.

#### *6. atala.- Administrazio antolaketa.*

1.- Babeslaritza izan, bakarra izango da, eta Zuzentza Sailaren Kabinete Teknikoko Zuzendaritzak beteko du. Helburu horretarako, bada, zuzendaritza horrek honako administrazio lantaldea erabiliko du:

- Erregistro, Ahokularitza eta Kontrolerako Lantaldea.

2.- Lantalde horren arduran izango dira Fundazioen Erregistroa bete eta erregistroan inskribatu aurretiko expedienteen izapideak egitea; erabakiak hartzeko proposamenak egin, aholkuak eman eta zaintza burutzeko orduan Babeslaritzarenak diren eginkizunak ere bereak izango ditu lantalde horrek, arautegi honetako 8. atalean xedatutakoaren ondorioz Eusko Jaurlaritzako beste sailei egotzitako eskuduntzen aurka jarri gabe.

#### *7. atala.- Zuzentza Sailaren eskuduntzak.*

1.- Zuzentza sailburuari, Babeslaritza egiten duen saileko buru denez, honako eginkizunak dagozkio:

a) Agindu bidez erabakiko ditu fundazioen hasierako inskripzioa egiteko expedienteak, baita fundazioak aldatu, batu eta iraungitzeko ere.

b) Fundazioen gobernu-organoetako kideen aurkako erantzukizunagatiko egintzak burutzea proposatuko dio Jaurlaritzaren Kontseiluari, baita legean ezarritakoaren arabera bidezko izan dadin beste edozein auzibide jartzea ere.

c) Fundazioen arautegiak eguneratzea proposatuko dio Jaurlaritzaren Kontseiluari, baita fundazioen eginkizunak hobeto betetzeko lagungarri izan daitezen beste edozein neurri hartza ere.

d) Kabinete Teknikoko zuzendariaren erabakien aurka aurkeztutako errekursoak ere sailburuak ebatziko ditu.

2.- Gainerako eginkizun guztiak Kabinete Teknikoko zuzendariak beteko ditu. Zuzentza sailburuaren erabakiek amaitu egiten da administrazio bidea eta administrazioarekiko auzitarako jurisdikzioan aurkatu ahal izango dira, indarrean dauden legeen arabera.

#### *8. atala.- Beste sailen eskuduntzak.*

1.- Fundazioek beren buruei jarritako helburuen izaera kontuan hartuta, fundazioei laguntza eman eta fundazio horiek sustatu eta koordinatzeko dituzten egiteko aparte, legearen 36.4. atalean ohartemandako betetze-indarreko irizpen-txostenak egin eta bertan adierazitako beste eginkizunak bete beharko dituzte sail horiek, beti ere fundazioek garatzen dituzten ihardueren arloan sail bakoitzak dituen eskuduntzen arabera.

culo precedente son aquéllas que le atribuye la Ley de Fundaciones, según las determinaciones que se establecen en el presente Reglamento.

2.- El Protectorado en su relación con las Fundaciones instruirá, asistirá y asesorará a éstas, tanto en su constitución como en su funcionamiento, sobre el régimen jurídico de aplicación y el cumplimiento de las obligaciones derivadas del mismo.

#### *Artículo 6.- Organización administrativa.*

1.- El Protectorado, de carácter único, se ejercerá a través de la Dirección del Gabinete Técnico del Departamento de Justicia. A estos efectos la Dirección dedicará a la citada competencia la siguiente Unidad Administrativa:

- Unidad de Registro, Asesoramiento y Control.

2.- Dicha Unidad tendrá a su cargo la llevanza del Registro de Fundaciones y la tramitación de los expedientes previos a la inscripción registral, así como las demás funciones, a nivel de propuesta de resolución, de asesoramiento y vigilancia que corresponden al Protectorado, sin perjuicio de la competencia atribuida a los Departamentos en los términos resultantes de lo dispuesto en el Artículo 8 del presente Reglamento.

#### *Artículo 7.- Competencias del Departamento de Justicia.*

1.- Corresponde al Consejero de Justicia, como titular del Departamento que ejerce el Protectorado, las siguientes funciones:

a) Dictar, mediante Orden, la resolución de los expedientes de inscripción inicial, modificación, fusión y extinción de fundaciones.

b) Proponer al Consejo de Gobierno el ejercicio de la acción de responsabilidad contra los miembros de los órganos de gobierno de la fundación, así como de cualquier otra acción judicial que proceda conforme a lo establecido en la Ley.

c) Proponer al Consejo de Gobierno la actualización de la reglamentación de Fundaciones y cuantas medidas contribuyan al mejor desenvolvimiento de las mismas.

d) Resolver los recursos que se planteen contra las resoluciones del Director del Gabinete Técnico.

2.- Las funciones restantes serán ejercidas por el Director del Gabinete Técnico. Las resoluciones del Consejero de Justicia agotan la vía administrativa y serán impugnables ante la jurisdicción contencioso-administrativa conforme a la legislación en vigor.

#### *Artículo 8.- Competencias de los Departamentos.*

1.- Además de las funciones de fomento, ayuda y coordinación de las fundaciones según la naturaleza de sus fines fundacionales, a los Departamentos, con competencias en el ámbito sectorial en el que desarrollen sus actividades aquéllas, corresponderá, respectivamente, la emisión del informe vinculante previsto en el Artículo 36.4 de la Ley, así como las demás funciones contempladas en el mismo.

2.- Aurreko lerroaldian aipatutako irizpen-txostenak hilabeteko epean egindo dira. Aipatutako epean egiten ez badira, delako irizpen-txostenetan aldekoa dela ulertuko da, expedientearen izapideek aurrera jarrai dezaten eta dagokion erabakia eman dadin. Dena dela, geroago bada ere, izango da irizpen-txostenetan bidaltzeko aukerarik, nahiz eta behin-betiko erabakia eman baino lehenago izan beharko den.

3.- Arautegi honetan ohartemandakoarekin bat etorritz, eskuduntzak dituen sail bakoitzari dagokio beteze-indarreko irizpen-txostenetan egitea honako expediente hauen izapideak egiten direnean:

- a) Autokontrataziorako baimena emateko.
- b) Fundazioak eratu, aldatu, batu eta iraungitzeko denean.
- c) Babeslaritzaren behin-behineko kudeaketarako denean.
- d) Aurrekontua, kontuak eman eta kontuak gordailuan jarri behar direnean.

## 2. SEKZIOA.- AHOLKU BATZORDEA

### 9. atala.- Konsultarako batzordea.

Legearen 36.3. atalean ohartemandako Aholku Batzordea kontsultarako organoa da eta Zuzentza Sailari atxikita dago. Fundazioen iharduerak garatzen diren arloetan eskuduntzak ditutzen saileko ordezkariek osatuko dute batzorde hori eta sorospen teknikoa eta aholkuak emango dizkio Babeslaritzari bere eskuduntzen eremuan.

### 10. atala.- Iharduteko araubidea.

1.- Aholku Batzordeak Osoko Bilkura eta Batzorde Teknikoa izango ditu. Gutxienez urtean behin bilduko da Osoko Bilkura, bertako lehendakariak deitura. Batzorde Teknikoa, aldiz, eztaibaidatzeko gairik dagoen guztietaan bilduko da edo Osoko Bilkurako kideren batek hala eskatuta.

2.- Batzorde zehatzak eratu ahal izango ditu Aholku Batzordeak, dagozkion lanak prestatzeko, Aholku Batzordeko kideez osatuta. Osoko Bilkuraren eta Batzorde Teknikoaren bileretara, bestalde, dena delako gaiko espezialista edo adituak joan daitezke lehendakarien erabakiz, hizpidea bai, baina botorik izan gabe.

3.- Aholku Batzordea eratu eta ihardunean jartzeko, orain arte oharteman gabe dauden kasu guztieta, kide anitzeko administrazio organoak arautzen dituzten arauetan xedatutakoari lotuko beharko zaio.

### 11. atala.- Osakera.

1.- Aholku Batzordearen Osoko Bilkura honako kide hauek osatuko dute:

- Zuzentza sailburuak.
- Zuzentza Saileko Kabinete Teknikoko zuzendarriak.
- Ekonomi eta Ogasun Saileko Zerga Administratzioko zuzendarriak.

2.- Los informes a los que se refiere el párrafo anterior serán evacuados en el plazo de un mes. Su falta de emisión en el término señalado dará lugar a que se entienda que es favorable en orden a proseguir la tramitación del expediente y dictar la resolución correspondiente, sin perjuicio de que con posterioridad y antes de que recaiga resolución definitiva pueda ser remitido el oportuno informe.

3.- A los Departamentos competentes corresponderá en todo caso la emisión del informe vinculante, de acuerdo con lo previsto en el presente Reglamento, en la tramitación de los siguientes expedientes:

- a) Autorización de autocontratación.
- b) Constitución, modificación, fusión y extinción de fundaciones.
- c) Gestión provisional del Protectorado.
- d) Presupuestos, rendición y depósito de cuentas.

## SECCIÓN 2.<sup>a</sup>.- LA COMISIÓN ASESORA

### Artículo 9.- Carácter consultivo.

La Comisión Asesora, prevista en el Artículo 36.3 de la Ley, es un órgano consultivo adscrito al Departamento de Justicia, integrado por los representantes de los Departamentos con competencias en el área sectorial en el que desarrollan sus actividades las fundaciones, que presta asistencia técnica y asesoramiento al Protectorado en el ámbito de sus competencias.

### Artículo 10.- Régimen de funcionamiento.

1.- La Comisión Asesora funcionará en Pleno y Comisión Técnica. El Pleno se reunirá al menos una vez al año convocado por su Presidente. La Comisión Técnica se reunirá siempre que hubiere asuntos pendientes de tratamiento o alguno de los miembros del Pleno así lo solicitare.

2.- La Comisión Asesora podrá constituir ponencias para la preparación de los trabajos que le correspondan. Las ponencias estarán integradas por miembros de la Comisión, sin perjuicio de que puedan asistir a las reuniones, tanto del Pleno como de la Comisión Técnica, por decisión de sus respectivos Presidentes, especialistas o expertos en la materia de que se trate, con voz y sin voto.

3.- Para la constitución y funcionamiento de la Comisión Asesora se estará, en lo no previsto, a lo dispuesto en las normas que regulan los órganos colegiados administrativos con carácter general.

### Artículo 11.- Composición.

1.- El Pleno de la Comisión Asesora estará integrado por los siguientes miembros:

- El Consejero de Justicia.
- El Director del Gabinete Técnico del Departamento de Justicia.
- El Director de Administración Tributaria del Departamento de Economía y Hacienda.

– Sainen barruan arlo hauetako batean diharduen ordezkari batek, baina zuzendari maila duena:

- . Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa.
- . Kultura, Gazteria eta Kirola.
- . Lana eta Gizarte Segurantza.

– Zuzentza Saileko Idazkaritza Teknikoko arduradunak.

– Erregistro, Ahokularitza eta Kontrol Lantialdeko arduradunak.

2.- Batzorde Teknikoa honako kide hauek osatuko dute:

- Kabinete Teknikoko zuzendariak.
- Zuzentza Saileko Idazkaritza Teknikoko arduradunak.
- Erregistro, Ahokularitza eta Kontrol Lantialdeko arduradunak.

– Kasu bakoitzean eskuduntzak dituen sailaren izenak, Osoko Bilkurako kide den ordezkariak.

3.- Sail bakoitzeko sailburuak izendatuko ditu saileko ordezkariak, bai titularra eta bai ordezkoa ere. Kasu horietan eta Kabinete Teknikoko eta Zerga Administracioko zuzendarien kasuetan, gainera, dena delako saileko goimailako teknikariren bat izan daiteke ordezkoko.

4.- Fundazioren batek berak betetzen dituen ihardunen izaeragatik, 1. idaztian aipatutako Eusko Jaurlaritzako sailekin barik beste batekin baditu harremanak, sail horrek Aholku Batzordean sartzea eska dezake, kide berria izateko, edo, bestela, iadanik partaide diren sailakoren baten esku utz dezake bere ordezkaritza; horrela bada, egoki iritzitako oharra helaraziko dizkio.

## 12. atala.- Lehendakaria eta idazkaria.

1.- Aholku Batzordearen Osoko Bilkurako Lehendakaritza eta Lehendakariordetza, hurrenez hurren, Zuzentza sailburuak eta Kabinete Teknikoko zuzendariak beteko dute. Zuzendari horri dagokio, halaber, Batzorde Teknikoaren Lehendakaritza; kargu horretatik ordezkatu beharrik izanez gero, Zuzentza Saileko Idazkaritza Teknikoko arduraduna izango da ordezkari.

2.- Batzordeko Osoko Bilkuraren Idazkaritza, ordea, goimailako funtzionario batek beteko du, hizpidea bai, baina botorik izan gabe. Zuzentza Saileko Kabinete Teknikoko Zuzendaritzara atxikita dagoena izango da, eta bere ardurapekoa izango da Batzorde Teknikoaren Idazkaritza ere.

## 13. atala.- Eginkizunak.

1.- Honako hauek dira Aholku Batzordearen eginkizunak:

a) Legearren 40.2. atalean ohartemandako aldeko irizpen-txosten egin ahal izateko, fundazioa inskribatzeko espedienteen aurre azterketa egingo du, fundazio bakoitzak duen helburu nagusiaren arabera sailkatu ahal izateko. Irizpen-txosten horretan arauzko egiazpen hauek baino ez dira egingo: legean ohartemandako gai guztiak jasotzen direla eratze-agirian, fundazioaren

– Un representante, con rango de Director, de cada una de las siguientes áreas de actuación departamental:

- . Educación, Universidad e Investigación.
- . Cultura, Juventud y Deportes.
- . Trabajo y Seguridad Social.

– El Responsable de la Secretaría Técnica del Departamento de Justicia.

– El Responsable de la Unidad de Registro, Asesoramiento y Control.

2.- La Comisión Técnica estará integrada por:

- El Director del Gabinete Técnico.
- El Responsable de la Secretaría Técnica del Departamento de Justicia.
- El Responsable de la Unidad de Registro, Asesoramiento y Control.

– El miembro del Pleno que lo sea por el Departamento que, en cada caso, sea competente.

3.- Los representantes de los Departamentos serán designados, en calidad de titular y suplente, por el Consejero respectivo. En estos casos y en los correspondientes a los Directores del Gabinete Técnico y de Administración Tributaria, respectivamente, podrá recaer la suplencia en un técnico superior del Departamento de que se trate.

4.- Cuando por la índole de las actividades que desarrolla una fundación ésta se relacione con un Departamento diferente a los señalados en el apartado 1, el Departamento interesado podrá bien integrarse en la Comisión en calidad de nuevo miembro o bien otorgar su representación a alguno de los Departamentos que ya forman parte de aquélla, haciéndole llegar, en su caso, las observaciones que estimen conveniente efectuar al respecto.

## Artículo 12.- Presidente y Secretario.

1.- La Presidencia y Vicepresidencia del Pleno de la Comisión Asesora será ostentada por el Consejero de Justicia y el Director del Gabinete Técnico, respectivamente. A este último se le atribuirá, asimismo, la Presidencia de la Comisión Técnica, cargo en el que será sustituido, en su caso, por la persona responsable de la Secretaría Técnica del Departamento de Justicia.

2.- Desempeñará la Secretaría del Pleno de la Comisión, con voz y sin voto, un funcionario de nivel superior, adscrito a la Dirección del Gabinete Técnico del Departamento de Justicia, a cuyo cargo correrá también la Secretaría de la Comisión Técnica.

## Artículo 13.- Funciones.

1.- La Comisión Asesora tendrá las siguientes funciones:

a) Examen previo de los expedientes de inscripción de constitución a fin de emitir el informe favorable previsto en el Artículo 40.2 de la Ley, en orden a su clasificación por razón de la materia que constituya el fin principal de la fundación. Dicho informe se limitará a la verificación reglada de que la escritura de constitución contiene los elementos contemplados en la Ley; así

helburuak legezkoak eta guztien intereserako direla eta, legearen 9. atalean ezarritakoaren arabera, fundazioak duen ondarea nahiko dela bere ihardueren lehenengo egitaraua garatzeko.

b) Babeslaritzari dagozkion auzibideen aurretiko irizpen-txostena egingo du.

c) Zuzentza sailburuak edo, bestela, Kabinete Teknikoko zuzendariak edo Aholku Batzordean dauden saileteko ordezkariek eskatutako irizpen-txosten guztiak egingo ditu.

d) Babeslaritzaren ihardueren Urteko Memoria onartuko du; Babeslaritzaren iharduteko irizpideak finkatzeke beharrezkotzat jo daitezen proposamenak ere berak onartuko ditu.

e) Fundazioen arautegia aldatu edo garatu aurreko irizpen-txostena egingo du.

f) Babeslaritzaren lana egiteko lagungarri izan daitezzen beste eginkizun guztiak ere berak beteko ditu.

2.- Goian aipatutako eginkizunetik d) eta e) idatzietan jasotakoak Osoko Bilkurak beteko ditu eta beste guztiak, Batzorde Teknikoak; Osoko Bilkurak hurrengo lehenengo batzarra egiten duenean eman beharko dio bere ihardueren berri Batzorde Teknikoak Osoko Bilkurari.

3.- 1. Ierroaldian ohartemandako irizpen-txostenak egiteko epeak eta ondorioak 8.2. atalean finkatutako berberak izango dira.

4.- Aholku Batzordeak bere-bereak dituen eginkizunak bete ahal izan ditzan, inskripzioa eska dezaten fundazioen datuez eta aurrekariez gain, bere iharduerak helburu onera eramateko beharrezko agiriak eta Babeslaritzari atxikitako baliabide materialak eta pertsonalak jarri beharko ditu Batzordearen eskutan Babeslaritzak.

### 3. SEKZIOA.- FUNDAZIOEN ERREGISTROA

#### 14. atala.- Erregistro bakarra.

1.- Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa, Zuzentza Saileko Kabinete Teknikoko Zuzendaritzaren menpekoa dena alegia, bakarra da, eta jarraian aipatzen diren sekzioak izango ditu, fundazio bakoitzaren helburuak kontuan direla emango zaizkien sailkapen ezberdin arabera:

a) Lehenengo sekzioa: irakaskuntzan eta ikerketan diharduten fundazioena.

b) Bigarren sekzioa: ongizate, laguntza eta lanerako diren fundazioena.

c) Hirugarren sekzioa: kultura, gazteria eta kiroletarako diren fundazioena.

d) Laugarren sekzioa: beste guztiak hartzen dituztenak.

2.- Fundazioren baten sailkapenari buruz zalantzrik balego, zelako sekzioa dagokion zehaztu ahal izateko alegia, fundazioaren sorrera agirian edo estatuetan sortzaileak agertutako borondateak adierazten duena onartuko da.

3.- Sekzio bakoitzaren barruan azpisekzio bat ireki-

como que los fines de la fundación son lícitos y de interés general y que la dotación patrimonial es suficiente para el desarrollo del primer programa de actuación, según lo establecido en el Artículo 9 de la Ley.

b) Informe previo al ejercicio de las acciones judiciales que procedan por parte del Protectorado.

c) Emisión de cuantos informes le sean requeridos por el Consejero de Justicia o, en su caso, por el Director del Gabinete Técnico o por los representantes de los Departamentos en la Comisión Asesora.

d) Aprobación de la Memoria Anual de actividades del Protectorado y de las propuestas que se prevean necesarias para establecer los criterios de actuación del mismo.

e) Informe previo a cualquier modificación o desarrollo de la reglamentación de las fundaciones.

f) Cualquier otra función que coadyuve al buen ejercicio del Protectorado.

2.- De las funciones antedichas las comprendidas en los apartados d) y e) corresponderán al Pleno y las restantes a la Comisión Técnica, dando ésta cuenta al Pleno de sus actuaciones en la primera reunión que aquél celebre.

3.- Para la evacuación de los informes previstos en el párrafo 1 regirán los mismos plazos y efectos establecidos en el Artículo 8.2.

4.- A efectos del cumplimiento por parte de la Comisión Asesora de las funciones que le son propias, el Protectorado habrá de poner a disposición de aquella además de los datos y antecedentes de las fundaciones que soliciten la inscripción y la documentación necesaria para el buen fin de su actividad, los medios materiales y personales que estuvieren adscritos al mismo.

### SECCIÓN 3.<sup>a</sup>.- EL REGISTRO DE FUNDACIONES

#### Artículo 14.- Carácter único.

1.- El Registro de Fundaciones del País Vasco, dependiente de la Dirección del Gabinete Técnico del Departamento de Justicia, es único, y constará de las secciones que se señalan a continuación, según la diferente clasificación que por finalidades se otorgue a cada fundación:

a) Sección Primera: que corresponderá a las fundaciones docentes y dedicadas a la investigación.

b) Sección Segunda: comprenderá las benéfico-asistenciales y laborales.

c) Sección Tercera: relativa a las fundaciones culturales, juveniles y deportivas.

d) Sección Cuarta: que abarcará las restantes.

2.- A los efectos de determinar la Sección correspondiente cuando existieren dudas sobre la clasificación de una fundación se estará a lo expresado por la voluntad del fundador en la Carta fundacional o Estatutos.

3.- Dentro de cada Sección se abrirá una subsección

ko da, legearen ezarpen eremutik kanpo dauden fundazioek Euskal Autonomi Elkartean dituzten ordezkartzak edo egoitzak inskribatu ahal izateko, legearen lehenengo erabaki gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz.

#### 15. atala.- Eginkizunak.

Hauek dira Fundazioen Erregistroaren eginkizunak:

- a) 22. atalean xedatutakoaren arabera erregistroan jaso behar diren egintzak sailkatu eta inskribatzea.
- b) Derrigorrez bete behar diren liburuak gaitu edo legeztatzea.

c) Arautegi honetako 59. atalak aipatzen dituen urteko kontuak eta gainerako agiriak gordailuan jasotzea.

d) Legean eta arautegian ohartemandakoaren arabera, egiaztagiriak eta zabalkunderako beste tresna edo baliabideak egitea.

e) 68. atalean xedatutako moduan, bere eskumenekoak diren gaiei buruz egindako kontsultei erantzutea.

f) Legeak edo arautegiak egotxitako beste edozein eginkizun betetzea.

#### 16. atala.- Erregistroa nola bete.

1.- Elkarren hurrenkerako zenbakiak dituzten orri higikor arautuez egindako sistemaren bidez beteko da Fundazioen Erregistroa; eratze inskripzioaren lehenengo idazpenaren egunaren ondoren, hurrenkera kronologikoa zainduko da, fundazio bakoitzaren historia bizia une oro agertzeko moduan. Orriaren eskuineko goiko erzean agertuko da erakundearren inskripzio zenbakia.

2.- Makinaz edo informatika bidez egingo dira idazpenak. Ertzetako oharrak eskuz edo zigiduz ere egin ahal izango dira.

#### 17. atala.- Protokoloa.

Fundazio bakoitzari protokolo edo expediente bat irekiko zaio. Bertan sartuko dira inskribatzeko aurkeztutako agiri guztiak, baita horiei buruz administrazioak hartutako erabakiak eta fundazioaren antolaketa, iharduera eta ihardunei buruz egindako beste agiri guztiak ere, agiritegi berezirik izendatuta ez badute.

#### 18. atala.- Gaitu eta legeztatutako liburuen fitxategia.

Fundazio bakoitzerako fitxa bana eginez beteko da gaitutako liburuen fitxategia; eta fitxa bakoitzean, era-kundearen izena eta inskripzio zenbakia, gaitutako liburua zein motakoa den eta zein egunetan gaitu zen jasoko dira.

#### 19. atala.- Kontuen gordailuko fitxategia.

Aurreko atalean ohartemandako moduan beteko da kontuen gordailuko fitxategia ere; fundazioaren izena eta inskripzio zenbakiaz gain, gordailuan utzitako agiri mota, zein egunetan utzi den eta zein ekonomia ekitaldikoa den jasoko dira fitxategian.

#### 20. atala.- Hutsen zuzenketa.

1.- Inskripzioetan egindako hutsak, inskripzio

aparte en la que se inscribirán las delegaciones o sedes radicadas en el País Vasco que establecieren aquellas fundaciones comprendidas fuera del ámbito de aplicación de la Ley, según lo dispuesto en la Disposición Adicional Primera de la misma.

#### Artículo 15.- Funciones.

El Registro tendrá las siguientes funciones:

- a) Calificar e inscribir los actos que según lo dispuesto en el Artículo 22 deban acceder al Registro.
- b) Habilitar o legalizar los Libros de llevanza obligatoria.
- c) Recibir el depósito de las cuentas anuales y demás documentos a que se refiere el Artículo 59 del presente Reglamento.
- d) Expedir certificaciones y demás instrumentos o medios de publicidad según lo previsto en la Ley y en el Reglamento.
- e) Resolver consultas en los términos resultantes de lo dispuesto en el Artículo 68 sobre las materias que sean de su competencia.
- f) Cualquier otra función que le atribuya la Ley o el Reglamento.

#### Artículo 16.- Sistema de llevanza.

1.- El Registro de Fundaciones se llevará por un sistema de hojas móviles normalizadas y numeradas correlativamente, siguiendo el orden cronológico de la fecha del primer asiento de constitución, de forma que refleje en todo momento la historia viva de cada fundación. En el ángulo superior derecho de la hoja se hará constar el número de inscripción de la entidad.

2.- Los asientos se extenderán a máquina o por procedimientos informáticos. Las notas marginales podrán practicarse también a mano o mediante estampilla.

#### Artículo 17.- Protocolo.

Por cada fundación se abrirá un expediente o protocolo en el que se archivarán todos los documentos presentados a inscripción, así como las resoluciones administrativas concernientes a aquéllos y cuantos otros documentos hagan relación a la organización, funcionamiento y actividades de la fundación de que se trate y no tuvieran asignado un archivo específico.

#### Artículo 18.- Fichero de habilitaciones y legalizaciones.

El fichero de habilitaciones se llevará mediante fichas individualizadas para cada Fundación, en las que se hará constar la denominación de la entidad y su número de inscripción, la clase de Libro habilitado y la fecha de la habilitación.

#### Artículo 19.- Fichero de depósito de cuentas.

El fichero de depósito de cuentas se llevará en la forma prevista en el artículo anterior, haciéndose constar además de los datos relativos al nombre y número de inscripción, el tipo de documento depositado, fecha del depósito y ejercicio económico a que hace referencia el mismo.

#### Artículo 20.- Rectificación de errores.

1.- Los errores cometidos en cualquier tipo de ins-

horiek edozein eratakoak direla ere, ezingo dira zuzendu konponketak, narrioak edo urradurak eginda. Idazpen berri bat eginez zuzenduko da, eta beste zenbaki bat emango zaio. Hona hemen bertan jasoko diren puntuak:

a) Hutsa zein idazpenetan egin zen eta zein lerrotan dagoen.

b) Okerrezko hitzak edo kontzeptuak.

c) Oker dauden ordez jarritako berbak.

d) Aurreko idazpena zuzendu egin dela argitzen duen aitorpena.

2.- Orri ertzeko oharren zuzenketa, bada, zuzendutako oharretatik ahal denik eta hurbilen egingo da.

3.- Erregistroko idazpenen bat zuzentzen denean, idazpen berriaren aipamen argia egin behar da idazpen okerraren ertzean.

4.- Inskripzio bat zuzendu ondoren, horrekin lotuta dauden gai guztiei buruzko beste idazpenak ere zuzendu egingo dira, beste liburu batzuetan egon arren, horrek ere okerrak badira.

Ertzean oharrok eginez burutuko da zuzenketa hori.

#### *21. atala.- Inskripzioak egiteko epea.*

Inskripzioa egiteko diren agiriak aurkezten direnetik hurrengo bi hilabeteen barruan egingo dira inskripzioak, akatsik ez badago. Hutsak zuzentzeko expedienteari hasiera eman izan bazaio, aldiz, hutsa zuzendu edo agiriak aurkezten direnetik kontatuko da epea, erregistroko arduradunak eskatutakoaren arabera.

#### 4. SEKZIOA.- ERREGISTROAREN EDUKINA ETA ZABALKUNDEA.

#### *22. atala.- Inscribatur daitezkeen egintzak.*

Honako hauek inscribatur beharko dira Fundazioen Erregistroan:

a) Fundazioa eratzea eta fundazioa aldatu, batu, iraungi eta likidatzeko egintzak.

b) Hasierako gobernu organoa osatzen dutenen zerrenda eta gero izandako aldaketa guztiak; likidatzalikerik izendatzen bada, horiek ere jasoko dira, baita karguak onartu dituztela ere.

c) Gobernu organoek agindutako ordezkaritza eta/edo ahalmentze orokorrak eta ezestapenak; auziatarako aginpidea kanpoan uzten da.

d) Hasiarazi daitezzen auzibideak eta horiei emandako sententzia finkoak.

e) Legearen 22. atalean aipatutako erabiltze egintzak edo zergapetze egintzak.

f) Legearen 38. atalean xedatutakoaren arabera, fundazioaren behin-behineko kudeaketarako baimena lortzeko egindako eskaria, baita ihardunbide horretan epaileak emandako erabakia ere.

g) Legeak agintzen duen beste edozer.

#### *23. atala.- Derrigortasuna.*

cripción no podrán rectificarse mediante enmienda, tachas o raspaduras. La rectificación se realizará mediante la extensión de un nuevo asiento al que se otorgará un número nuevo y en el que se hará constar:

a) La referencia al asiento y línea donde se ha cometido el error.

b) Las palabras o conceptos erróneos.

c) Los términos que sustituyan a los errores cometidos.

d) Declaración de haber quedado rectificado el asiento primitivo.

2.- La rectificación de notas marginales se extenderá lo más cerca posible de las rectificadas.

3.- Cuando se haya rectificado un asiento registral, se extenderá al margen del asiento erróneo una remisión suficiente al nuevo asiento.

4.- Rectificada una inscripción, se rectificarán también el resto de los asientos relativos a las materias afectadas, aunque se encuentren en otros Libros, si también fueran erróneos.

Dicha rectificación se realizará mediante la extensión de la correspondiente nota marginal.

#### *Artículo 21.- Plazo para practicar las inscripciones.*

Las inscripciones se practicarán, si no mediaren defectos, dentro de los dos meses siguientes a la fecha de presentación de los documentos objeto de inscripción. Si se hubiere abierto el trámite de subsanación de defectos, el plazo se contará desde que se hubiere aportado o subsanado los documentos, según lo exigido por el Encargado del Registro.

#### SECCIÓN 4.<sup>a</sup>.- CONTENIDO Y PUBLICIDAD FORMAL DEL REGISTRO.

#### *Artículo 22.- Actos inscribibles.*

En el Registro de Fundaciones deberán inscribirse:

a) La constitución de la fundación y los actos de modificación, fusión, extinción y liquidación.

b) La composición inicial del órgano de gobierno y todas las variaciones posteriores, incluido en su caso el nombramiento de los liquidadores, así como la aceptación de los cargos.

c) Las delegaciones y/o apoderamientos generales que efectúen los órganos de gobierno, exceptuando el poder para pleitos, así como sus revocaciones.

d) El ejercicio de las acciones judiciales que se entablen y la sentencia firme que recaiga.

e) Los actos de disposición o gravamen comprendidos en el Artículo 22 de la Ley.

f) La presentación de la demanda para la autorización de la gestión provisional de la fundación, según lo dispuesto en el Artículo 38 de la Ley, así como la resolución judicial que recaiga en el procedimiento.

g) Cualquier otro que ordene la Ley.

#### *Artículo 23.- Obligatoriedad.*

1.- Aurreko atalean zerrendatutako egintzak nahi-taez jaso behar dituzte erregistroan legearen menpe dauden fundazioek; egintzak amaitu eta irmotasun juridikoa lortzen dutenetik hiru hilabeteko epean egingo da hori.

2.- Fundazioa eratzeko egintza «inter vivos» erregistratzen denean, fundazioa eratzeko agiria ematen denean hasiko da derrigortasuna; oinordetzaren ondorioz eratzen denean, aldziz, ordeinua egin duena hiltzen denean hasiko da derrigortasuna, egintza biok ere atze-ra ezinezkoak dira eta.

#### *24. atala.- Erregistroaren ondorioak.*

1.- Fundazioen eratze agiria inskribatzea ezinbesteko baldintza da nortasun juridikoa lortzeko, legearen 5.2. atalean xedatutakoarekin bat etorriz.

